

GEURIEN ZER? Herriko elkarteak zertan diren

ALEXANDRA ISPIZUA | Xixili alkartea

Xixili alkartea orain dala 15 urte baino gehiago dabil lanean. Betidanik apustu egin dau, herrira, gorputz ongizaterako kirol-modalidade barriak ekarteko. Gaur egun, gimnastika klaseak jasoten dabean nesken kopurua 80 eta 90 artekoa da, 35 neskatxu Gernikan eta 60 Bermeen.

Nola jagoten dau Xixili alkarteak euskerearen erabilera?

Egia esan, Xixili beste gimnastika alkarte batzuak alderatuta, betidanik arduratu izan da ekitaldi guztietan euskal giroa zabaltzen, bertoko arropak eta janzkera erakutsiz; eta euskerea erabiltzen eta zabaltzen, bai kirol ekitaldien aurkezpenetan, bai emondako parte-hartze tituluetan. Kontuan euki behar da gure torneoetara ez dirala bakarrik euskal alkarteak hurreratzeko; beste autonomia batzuetakoak be etorten dira.

Baina lan handia egin beharra dago, bai Gimnastika federazioaren aldetik, baita teknikarien aldetik be. Alde batek, federazioek eskegiten daben informazio guztia erderaz da, ez dago euskerea erabilteko ezelako suspertze programarik nik dakidala; eta, beste aldetik,

teknikariok, euskerea erabili gura izateaz ganera, euskerazko berba tekniko egokiak erabiltzen asmatu beharko genduke.

Orokorrean, zein da euskereak kirol munduan, eta, zehazki, gimnasiaren munduan daukan presentzia?

Zoritzarrez, gimnastika mundua erdalduna da. Nire kasuan, adibidez, nahiz eta klaseak euskeraz ematen dodazan, bai Bermeon eta bai Mungian be, gogoia ez da nahikoa. Ez daukagu tresna nahikorik berba tekniko egokiak erabilteko, klaseak euskeraz emateko... Eta nire moduan, beste horrenbeste monitorea eta teknikari ezagutzen dodaz, bai Bizkaian bai Gipuzkoan. Horrek sekulako pena emoten deust, bizitzarako eta heziketarako horren garrantzitsua dan esparru hau, kirola, biluzik gelditzen ari dalako eta euskerea ez dagoalako normalizaturatu, ez bermatuta ezta bultzatuta be. Arazoa ez da neskatxuek ez dakiela euskeraz edo ez dabela euskerea ulertzen, baizik eta kirolean hezten daben nagusiek ez deutsoela inportantziarik emoten euskeraz berba egiteari edo hezteari, eta neskatxu honen aukerak guztiz murrizten dira.



KIROLEAN EUSKARAZ EGITEKO MATERIALAK INTERNETEN



www.kirolaeuskaraz.net:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa da. Web gunean kirolarientzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat material topa daitezke:

- **Kirolaren inguruko hiztegia**
- **Fitxa didaktikoak:** kirol bakoitzean egin beharreko ariketak azaltzen dira xehetasun osoz. Kirol askoren fitxa didaktikoak topatu daitezke bertan: pilates, surfa, natur ekintza, tenisa, karatea...
- **Kartelak:** Kartel-ereduak ere badaude bertan: entrenamendu printzipioak, gorputz-atalak, luzaketak...
- **Errotuluak:** kirolean erabiltzen diren errotulu euskaratuak. Hona hemen adibide batzuk:
 - Akreditazio gunea - Zona de acreditación
 - Joko eremua - Zona de juego
 - Kantxa - Cancha

5. zenbakia | 2010eko udazkena

Kalinpan ekitaldi batetik bestera euskara sakatzen

Irailaren 18an egin zuen lehendabiziko agerpena Kalinpan edari isotonikoak Bermeoko estropadetan (XXVIII Bermeoko ikurriña).

Urdaibai Arraun Elkarteari Kalinpanek ere indarra eta animoak eman zizkion eta, horrez gain, ikusleak alaitu zituen fanfarrearen soinuan dantzatzeko.

"Ibili, izerditu eta edan" mezua jasotzen dituzten txapak banatu zituen geure lagun berriak, kirola ere euskeraz egin daitekeela gogoratzeko.

Herritarren harrera bikaina egin zioten: Denek atera nahi zuten argazkiren batean Kalinpanekin.

Hemendik aurrera, Bermeoko kirol-taldeek antolatzen dituzten ekitaldietan ikusi ahal izango dugu.

Horregatik, kirol-taldeen egutegia osatzen ari gara Kalinpanen agerpenak zehazteko.

Kalinpanek denetarik egingo du: txapak banatu, euskerazko animo-oihuak zabaldu, zuekin dantzatu, ekitaldiak alaitu eta, nola ez, guztion egarria ase.



Horrez gain, kiroldegian, futbol-zelaian... ere presente izango dugu Kalinpan. Bertan antolatzen diren ikastaroetan eta ekitaldietan ere parte hartu nahi du gure maskotak, han eta hemen euskara gehiago erabil dezagun.

Ez ahaztu!

Kalinpan
ibili, izerditu eta edan





2009KO JAI OBERRIEN LIBURUA AURKEZTEKO JAI

Bermeon 2009an jai o ziren umeen bertso-liburua aurkeztu da azaroaren 28an Kafe Antzokian. Guraso eta ume asko hurreratu dira Patxin eta Potxin pailazoek alaitu duten jai polit bezain hunkigarri horretara. Ilaski Serranok gidatu du jai eta liburuak familiei banatzen alkatea eta Euskara zinegotzia izan dira. Grabatu den DVDa eskuratu gura duenak Euskara Sailera jo dezake.



EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOEA

Urtero legez, Euskara Sailak katalogoaren 3.000 ale banatu ditu Bermeon, garai honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota bideoak oparitzeko aukera izaten dela kontuan hartuta. Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu edizio berri honek zortzi ataletan banatuta. Merkatuan dauden produktuaren artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta. Paperezko edizioaz gain, www.katalogoa.org web gunean produktuaren erreferentzia zabala jaso da.



BERMEOKO TOPONIMIA: ARIKETAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, KANTAK

Interneten sareratu berri du Euskara Sailak beste baliabide bat Bermeoko leku-izenak ezagutzeko eta erabiltzeko. Ariketak, argazkiak, kantak eta bideoak batu dira www.bermeo.org/toponimia web gunean. Leku izenak ikertu dituzten Irune Allikak eta Bitor Uriartek prestatu dituzte ariketak, 70 inguru, eta horiek osatzeko argazkiak. Bestalde, Bermeoko kanta ugari sareratu dira. Eta, azkenik, bideoen atalean, Turismo Bulegoak itsasoaren bizimoduagaz zerikusia duten herritarrei grabatutako "Itsasoa ulertzen, itsasotik ikasten" erreportajeak. Askoren elkarlana behar izan da web gunea martxan jartzeko eta erabili gura duen edozein pertsonaren esku dago.


Ai, ai, ai... zuk ez eta nik bai

Lameratik bagabiltza, eta bertan daudenei galdera hau eginez gero, "ze ordu da?", zenbaterik ulertuko digute? Zenbaterik erantzungo digute euskaraz? 2006ko datu soziolinguistikoen arabera, 10etik 9k ulertu egingo digute arazo barik, eta 10etik 8k euskaraz esango digute ordua. Baina, benetan, gure herrian, 10 elkarrizketatik 9 euskaraz izaten dira? Azken kale-neurketaren arabera, Busturialdean 10etik 5ek baino ez du euskara erabiltzen kalean. Zergatik ez dugu erabiltzen beste 4etan? Izan ere, 10 atzamar izanda, zergatik ez erabili guztiak?

Euskaraz berba egiten jakin ez arren, euskara ulertzen duenari euskaraz egiten diogu? Euskara ikasten dagoenari, astiro-astiro berba eginez, euskaraz egiten diogu? Gero, "horrek ez du inoiz ikasi" esango dugu.

Lehenengo baten, Bermeoko elkarte bateko kide batzuekin berba egiten:

- Eta juntako batzarrak zelan egiten dozuez?
- Erdaraz, erdaraz. Pare batek ez daki euskaraz: honek eta besteak- dio juntako batek.
- Honek ez dakiela? Bigarren perfila atarata dauka, holan da ze, ulertu ulertzen dau, berba egitera ausartzen ez dan arren.



Aaaaah! Hona hemen egoera horren formula matematikoa:

$$5 + 2 = 7$$

euskaldun ia euskaldun erdaldun

Ederto! Majo! Hori bai euskaldunak ezkutatzeko sistema eraginkorra.

Horretaz guztiaz konturatuta, ulertzen duten euskaldunen bila hasi gara. Elkarte batzuetako juntetako kideekin para gara harremanetan eta euren batzarretan euskara gehiago erabiltzeko bideak aztertuko ditugu. Helburua hau izango da: kide guztiek euskara ulertuta, bakoitzak bere hizkuntza erabiltzea, horrela, hasierako formula hori aldatu egingo dugu:

$$5 + 2 = 5 + 2$$

euskaldun ia euskaldun euskaldun euskaldunago

Berdinketa hau askoz ere logikoagoa da, ezta? Horrela, apurka-apurka bi pertsona horiek euskaldunagoak izango dira, gehiago erabiliko dutelako, eta 5 euskaldunak euskaraz bizi ahal izango dira.

Zeure esku dago: lehenengo berba euskaraz eta hurrengoak ere bai.



LEHENENGO BERBA EUSKARAZ

Turismo arloko kalitate ziurtagiria duten erakundeek Geurien be barekin bat egin zuten azken Arrain Azokan. Izan ere, euren betekizunaren artean, hizkuntzarena ere badago, eta Bermeon euskaraz duen garrantzia jabetuta, bat egin dute egitasmoarekin.

Jendaurreko establezimendu hauetaz gain, merkatariek ere aspalditik dabilta herriko paisaia euskalduntzen: kartelak, ordutegia, itxita/zabalik, publizitatea... Apurka-apurka gero eta euskara gehiago ikusten dugu kaleetan, baina entzun? Euskara gehiago entzuten dugu?

Horretaz jabeturik, Kontseiluak "Lehenengo hitza euskaraz" kanpaina antolatu du zerbitzuen arloan euskara gehiago erabiltzeko eta euskaldunok euskaraz bizi izateko. Izan ere, zerbitzuen arloak baditu bi ezaugarri: bata, hizkuntzaren bat ezagutu eta erabili behar dela; bestea, bezeroen nahiak asetzeko nahi duela zerbitzu-emaileak. Guztiok bezero izan gaitezkeela aintzat hartuta, euskaldunok lanean para nahi ditu kanpaina honek: harreman komertzialetan, langileen eta bezeroen artean, euskaraz hitz egin ahal izatea eta euskaldunok euskaraz egitea nahi da, euskara zerbitzu-hizkuntza izatea.

Beraz, euskaldunei dei egiten dizuegu euskaraz bizitzeko, erosketak euskaraz egiteko, euskarazko zerbitzuak eskatzeko. Bakoitzak bere mailan euskara erabili komertzioetan. Gainera, gure herrian aukera paregabea daukagu zerbitzua euskaraz hartzeko, establezimendu ia guztietan euskaldunak topatuko baititugu. Zerbitzu-emaile euskaldunak aukeratu nahi ditugulako, euskaraz bizi nahi dugulako.